# Andoaingo guduari buruzko erakusketa Basteron

*Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta bertan ari dira*

Andoaingo Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailak seigarren urtez jarraian parte hartuko du Europako Ondarearen Jardunaldietan. Honenbestez, Manuel Larramendi Kultur Bazkunarekin elkarlanean, Andoaingo Guduari buruzko erakusketa aurkeztuko da Bastero Kulturguneko Erakusketa Gelan, irailaren 10etik 25era. ***Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta bertan ari dira*** izenburua duen erakusketa ikusteko aukera izango da, baita bisita gidatuetan parte hartzekoa ere.

Andoainen, 1837ko irailaren 14an, Lehen Gerra Karlistaren garaian, izugarrizko borroka gertatu zen liberal eta karlisten artean. Baserriak eta soroak erreta, bertako hainbat familiak bertatik ihes egin beharra izan zuen. Iheslari horietako asko eta asko emakumeak eta bere ardurapean zeuden senideak. Ez zen txantxetako trantzea izan. Egun horretan karlistek gure herrian garaipena lortzeak, Andoainen karlisten aldetik gerra-frontea bertan finkatzea ekarri zuen, horren ondorio guztiekin.

Izenburuak berak dioen bezala, gatazkek gizarte osoan eragiten duten arren, gizarte horren erdia, emakumeak alegia, ahaztuak izaten dira maiz. Erakusketa honetan badira emakumeak, orduan izan ziren eta egun ere lanean ari dira.

Txitxu Ruiz zinegotziak azpimarratu du “emakumeak gertakari historiko horretan eta gisa berekoetan izan zuen eginkizuna erakutsi eta balioan jarri nahi dela” eta gonbita luzatu die andoaindar guztiei Basteroko erakusketaz eta bisita gidatuez goza dezaten.

Erakusketaren ordutegia honako hau izango da:

**Astelehenetik ostiralera:** 18:30 – 20:00
**Larunbatetan**: 10:30 – 13:30 / 18:30 – 20:30

Sarrera doan da. Bisita gidatuetan parte hartu nahi dutenek Bastero Kulturguneko 943-303540 zenbakira dei dezakete edota basteroataria@andoain.eus helbidera idatzi. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea, plaza mugatuak baitira. Bisita gidatuetan ezusteko polita izango dute bisitariek.

**irailak 18an -** 11:00etan gazteleraz eta 12:00etan euskaraz
**irailak 25ean -** 11:00etan gazteleraz eta 12:00etan euskaraz

Andoain, 2021eko irailak 4

# Exposición sobre la batalla de Andoain en Bastero

*Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta bertan ari dira*

El Departamento de Educación y Cultura del Ayuntamiento de Andoain participará por sexto año consecutivo en las Jornadas del Patrimonio Europeo. Así, en colaboración con Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, del 10 al 25 de septiembre se presentará una exposición sobre la Batalla de Andoain en la sala de Exposiciones del Centro Cultural Bastero. Se podrá ver la exposición titulada ***Ahaztuak. Emakumeak bertan ziren eta bertan ari dira***, y también existirá la posibilidad de participar en visitas guiadas.

El 14 de septiembre de 1837, durante la Primera Guerra Carlista, se produjo en Andoain una tremenda lucha entre liberales y carlistas. Se quemaron caseríos y campos de cultivo, varias familias tuvieron que huir del lugar. Muchas de esas personas fugitivas eran mujeres y los y las familiares a su cargo. No fue un tema como para tomárselo broma, ni mucho menos. La victoria de los carlistas ese día en nuestro municipio supuso la consolidación del frente de guerra por parte de los carlistas en Andoain, con todas las consecuencias que ello tuvo.

Como su título indica, aunque los conflictos afectan a toda la sociedad, la mitad de esa sociedad, las mujeres, son, a menudo, olvidadas. En esta exposición vemos mujeres, mujeres que estuvieron en aquel momento y que a día de hoy siguen trabajando.

La concejala Txitxu Ruiz ha subrayado que “se trata de mostrar y poner en valor el papel de la mujer en este y otros hechos históricos” y ha invitado a todas las personas andoaindarras a disfrutar de la exposición y de las visitas guiadas de Bastero.

El horario de la exposición será el siguiente:

**De lunes a viernes:** 18:30 – 20:00 horas
**Sábados**: 10:30 – 13:30 / 18:30 – 20:30 horas

La entrada es gratuita. Quienes deseen participar en las visitas guiadas pueden llamar al número 943-303540 del Centro Cultural Bastero o escribir a la dirección electrónica basteroataria@andoain.eus. Es imprescindible la preinscripción, ya que el número de plazas es limitado. En las visitas guiadas los y las visitantes tendrán una grata sorpresa.

**18 de septiembre -** 11:00 en castellano y 12:00 en euskera
**25 de septiembre** - 11:00 en castellano y 12:00 en euskera

Andoain, 4 de septiembre de 2021